

Kultur astea urriaren 20tik 31ra izango da aurten



Iaz egin zen bezala, aurten ere, kultur astea urrian egingo da. Baina aurtengoan azpimarratzeko moduko aldaketa batekin dator: astebete izan beharrean hamar egunez luzatuko da: urriaren 20tik 31ra. Oraindik egitaraua guztiz itxita ez badago ere, herritarrak animatzen joan daitezen, hemen doa aurten udazkenak kultura arloan Zeraina ekarriko duenaren berri.

Urriaren 20an, elikadura osasuntsuari buruzko hitzaldi batekin hasiko da kultur astea. Urriaren 22an, mahai inguru bat izango dugu bola-jokoari buruz. Hurrengo egunean, larunbatean, Aizpeko burdinaren mendian prestatu diren ibilbide tematikoetan barrena bisita egiteko aukera izango da goizean. Urriaren 25etik 29ra hainbat

hitzaldi izango dira iluntzero. Besteak beste honako gaiak landuko dira: ola-gizonak, alkoholismoa, "ola" hitza Zerainen eta uhinek osasunean duten eragina. Urriaren 30ean, larunbata, goizean haurren marrazki lehiaketa egingo da. Eguerdian, berriz, iaz bezala kantu-bazkarian herritarrak biltzeko aukera izango dugu.

Horiez gain, kultur astean zehar kuru bat eta antzerki bat ere ekarri nahi dira. Zeraingo lehenengo patata tortila lehiaketa ere antolatuko da. Eta nola ez! jubilatuen eguna ospatuko da meza, bazkari eta bertsolariekin. Beraz, urriaren 20tik 31ra izango dugu Zerainen zer egina eta zer ospatua. Egitarau osatua aurrerago banatuko du Oa Kultur Elkarteak.

Porrotxek lagunduta “Gamuxiñoen bila” festa ospatuko da ostiralean

Irailaren 24an, ostirala, festa berezi bat ospatuko da Zerainen: “Gamuxiñoen bila” jaialdia. Guraso elkarteak gonbidatuta Porrotx paila-zoa etorriko da eta iluntze ederra pasako dugu elkarrekin.

Arratsaldeko 6:30etan plazan bildu eta kanpinak jarriko ditugu. Ondoren jolasak (aulki jokua, koxkol biltzea, arrautza jokua...) izango dira haur, guraso eta edozein herritarrentzat. Iluntzeko 8etan afari-mokadua egingo dugu bokadiloekin. Segidan, Porrotxek saiotoxo bat egingo du betiko moduan barrabaskeri eta txorakeriak eginez.

Eta iluntzeko momentu bereziena gaueko 9etan etorriko da. Orduan abiatuko gara Gamuxiñoen bila herrian zehar. Horretarako zartagiak, mailuak eta linternak hartuko ditugu;



eta Porrotx gidari jarrita abenturari ekingo diogu. Ordubeteko ahaleginaren ostean, gaueko 10etan, bilatzeari

utzi eta plazara itzuliko gara. Kanpinetan sartu eta lotara joango gara Gamuxiñoekin amets egitera.

Arantzazuko peregrinazioa giro ezin hobean egin zen



Joan den irailaren 4an izan zen aurtengo Arantzazuko peregrinazioa. Berrogei lagun inguru joan ginen herritik. Eguraldi onaz gain, giroa ere aparta izan genuen. Batek baino

gehiagok gogoan izango ditu Urbiko kalejira eta arin-arinak. Menditik behera jaitsita, Arantzazun harrera beroa egin ziguten praileek Zerain, Segura eta Mutiloako erromesoi.

Gripearen aurkako txertoa hartzeko eguna: urriaren 1a

Udazkenarekin batera, sagarrak, onddoak eta usoak ez-ezik, gripea ere zalea da agertzen. Hori dela-eta, urterro gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina martxan jartzen du Osakidetzak. Aurten, Zerainen, urriaren 1ean egongo da txerto hori hartzeko aukera.

Printzipioz, egun bakarrean, urriaren 1ean, ostiralez, egongo da gripearen aurkako txertoa hartzeko aukera Zeraingo medikuarenean. Egun horretan goizeko 8:30etatik 10etara bitartean eskainiko da zerbitzu hori. Baina txertoa jarri nahi dutenek aurrez 943 027700 telefonora (Beasaingo ambulategia) deitu eta txanda hartzea ezinbestekoa da.

Bestalde, etxetik mugitzeko ezintasuna duen norbaitek txertoa hartu nahiko balu, herriko medikuarekin edo erizainarekin harremanetan jartzeta du aukera onena. Haiek etxera joango zaizkio txertoa ematera.

Katonadu, katonau

Noizpait agerturik zuen Elenak gogoia, ahal bezain azkar hitz honi heltzeko. Nik ez nuen ezaguna: ez erabilia eta ez inori entzuna, Zeraindik kanpora. Herrian bertan ere, apenas askori aditua nion ordura arte. Berak baietz: herrian ezaguna dela oraindik, nahiz eta galtzen ari den. Merezi lukeela, horregatik, hartan fijaszea. Etorri zaio beraz txanda, halako batean. Gatozen harira: zer da *katonadu* edo, Zerainen esan ohi den moduan, *katonau*? Elenak erantzun argia dauka galdera horrentzat: "gauzak antolatu edo moldatu nonbaiten". Adibide pare bat erantsi du, adierazi nahi duena zehatzago ager dadin:

- Nola *katonauko* dituk hauek denak maleta honetan?

- Armarioan gauzak *katonau* ezinean nabil.

Galtzen ari da *katonau*. Honela dio Elenak, hitz horrek Zerainen orain gutxira arte izan duen eta gaur egun duen erabileraz: "hitza oraindik ere erabiltzen da, 55 urtetik gorako artean gehienbat. Ezagutu gehiagok ere egiten dute antza, baina erabili ondotoz gutxiagok. Hortik beherako askok ez dute ezagutu ere egiten. Nik betidanik entzun izan dut, baina gutxitan erabili: ia batere ez. Nire ahizpa zaharrenei orain gutxi entzun diet goiko esaldi antzekoren bat. Seguran ere ezagutzen da, Laureano Telleriak dioenez".

Informazio aberatsa bildu du Elenak, ohiko moduan. Ezer askorik erantsiko ez badiot ere bere uzta opa-roari, diodan galdezka ibili naizela atzo ilunabarrean eta gaur eguerdian, etxeko sukaldean batetik eta Ostatun bestetik. Galdeketa horiek direla medio, puntturen bat edo beste eransteke moduan garela dirudi. Urte luzez plaza inguruan bizi izandakoen artean badirudi ez dela hain ezaguna: Xanti Alustizak eta Maritere Telleriak, esate baterako, ez dute hitz horren arrasto handirik.

Maixueneko Jabierrek badu orain baino lehen zeraindarrei hitz hori entzun izanaren errezeloa, baina bere adiera zehatza ez du gogoan. Korosmendiko Iñakik, aldiz, entzun orduko esan du baietz: ezaguna duela eta Elenak jasotako modu horretantxe erabiltzen dela. Berritua ere, ez baita lehenengo aldia, badirudi herriko kaskotik kanpora bizi diren zeraindarren artean bizixeko gorderik ageri direla plaza inguruan galbide bizian doazen hitz batzuk. Azken hirurogei bat urtean lanbidez eta harreman-sarek bestelako bizi-modua izan dutelako batzuek eta besteek? Ez dakit. Susmo hutsa da hori.

Gatozen, nolahi ere, harira. Zer dio Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegiak*, gaurko hitz honetaz? Ezer gutxi. *Katonadu* edo *katonau* forma, hasteko, ez da bertan ageri. Bai, ordea, *katonatu* eta *katondu*. Azken bi forma horietaz badakar informazio argirik. Hona zer dioen, konkretuki: "acomodar, ajustar unas cosas con otras, arreglar". Hitz hori Goierrikoa dela dio hiztegiak. Erabili izan dutenen artean, Ormaiztegin jaiotako Serapio Mujika artxibozain famatua aipatzen du. Adibide bat ere ematen du hiztegiak, Serapioren idazki batetik jaso: "*katonatu* ditza zu ontzi oiek saski ortan". Forma aldetik diferentziatua hor egonik ere batzuen eta besteen artean, adiera aldetik bistan da oso elkarregandik hurbil dabilzala OEHko definizioa eta Elenak bildutakoa.

Nondik ote dator hitza? Hiztegiak ez dio horretaz gauza handirik. *Katon* hitzaren ondo-ondoan datorrelarik, dena den, hipotesi-bide bat zabaltzeko aukera daukagu. Behinolako *katon* hitzetik, eskolameen *katoi* famatu hartatik, eratorria ote da Zeraingo eta Goierriko *katonadu*, *katonau* aditza? Has gaitzen, gazteentzat bereziki, *katon* horrek zer esan nahi zuen gogorazten. OEHk honako hau dio: "El catón, el primer (y único) libro que se tenía

en los primeros cursos escolares". Gipuzkoako *dot*-esparruan, Bergara inguruan konkretuki, jaso du Elexpuruk honako adibide hau: "Katona leitzen ikasi ezker eskola danak ikasita zerela pentsatzen zan". Txomin Agirre ondarruarak, bestalde, honela zioen Kresalan: "Mutilla? Argiagorik eta ikastunagorik eztago errian. Katona be badakita!" Beterriko Txirritak ere badu, azkenik, halako aipamenik bere bertso batean: "Nere eskola izandu ziran / kartilla eta katona".

Litekeena al da *katon* horretatik *katonu(du)* atera izana? Forma aldetik ez da ezinezkoa, baina erraz-erraz ere ez. Formari dagokionez *katondu* litzateke errazena, izan ere, ez *katonu(du)*. Gaztelaniazko *catonar* forma esistitu izan bada inoiz, handik harturiko mailegua erraz izan zitekeen forma aldetik *katonatu* edo *katonu(du)*. Ba al dago, ordea, halako erdal aditzik esistitu izanaren testigantzarik gaztelaniazko hiztegiatan? Ez dut halakorik topatu. Adiera aldetik litekeena al da, bestalde, *katonu(du)* hori *katon* hitzetik etorri izana. Hor ere ez da kontu erraza, baina ezinezkoa ere ez. *Catoniano* eta *catonizar* hor daude Maria Molineren hiztegian, *catón* hitzaren ondoan, eta sarrera bietan *severo*, *censurar severamente* irakur liteke. Iñaki Korosmendiri gaur eguerdian entzundako aipamenean batean, seberidade kontu hori Zerainen bertan *katonu(du)* hitzarekin uztartu samarturik ibilia ote den iruditu zait. Atea zabalik dago, beraz, informazioa kontrastatzeko, metatzeko eta hobetzeko. Hor doa gure gonbita, kontu horren gainean beren ustea, iritzia edo hipotesia agertu nahi duten guztientzat. Ongi etorria emango dizuegu bihotzez, Elenak eta biok, horretan saiatzen zaretenoi.

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

ABUztua	al	ar	az	og	or	lr	ig
							1
Euria (l/m)	GUZTIRA: 35,5 l.						1,5
C° altuena	ALTUENA: 41°						20
C° baxuena	BAXUENA: 9°						17
	2	3	4	5	6	7	8
Euria (l/m)	5	1,5	1	6	0	0	0
C° altuena	21	24	24	25	27	33	26
C° baxuena	16	15	13	15	10	12	14
	9	10	11	12	13	14	15
Euria (l/m)	3	0	0	5	4	2	2,5
C° altuena	22	33	32	22	21	21	24
C° baxuena	17	14	12	17	14	12	11
	16	17	18	19	20	21	22
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0
C° altuena	27	33	31	32	36	39	36
C° baxuena	10	10	12	16	16	19	18
	23	24	25	26	27	28	29
Euria (l/m)	0	3	0	0	0	1	0
C° altuena	38	23	38	41	30	26	29
C° baxuena	17	17	13	18	17	16	12
	30	31					
Euria (l/m)	0	0					
C° altuena	26	31					
C° baxuena	11	9					

Abuztua ere lehorra

Uztailekoaren bide beretik joan da abuztuko eguraldia: lehor. Baina hori bai, uztaila baino beroago ere bai. Guztira 35,5 litro utzi dizkigu hilabeteak. Termometroak, berriz, 30 gradutik gora joan dira gutxienez 13 egunetan; bada zerbait! Eta horiek guztiak baino harritzekoagoa dena ere gertatu da: San Roke gauean ez zuen ez lauso, ez lanbro eta ez euririk egin. Herri-afaria izarren aterpean eta freskura bikainean egin genuen.



Aideak jo dituzte tomate asko

Urritik aurrera hainbat ikastaro eskainiko ditu Kultur Elkarteak



Ikasturte berriarekin batera, Oa Kultur Elkarteak hainbat ikastaro eta kurtso eskaini nahi dizkie herritarrei. Alde batetik, azken urteotan bezala, ingelesko klaseak emango dira. Bestalde, iaz bezala, aurten ere yoga-ko saioak egiteko aukera izango da taldea osatzen bada. Horiez gain, iaz egindako argazki ikastaroaren biga-

rren zatia eskaintzeko asmoa ere badago. Azkenik, ikastaroaren zentzu itxian ez izan arren, astean behin dantza egiteko eta bolatan jokatzeko aukera emango zaie herritarrei. Beraz honako aukerak daude: ingelesa, yoga, dantza, bola-jokoa eta argazkilaritza. Interesa dutenek udaletxean izena eta kontaktoa utz ditzatela.

Ostatun tabernari berriak

Irailaren 19an itxi zituen atea Ostatu jatetxe eta tabernak eskuz aldatzeko. Ana Insaustik utzi duen lekua betetzera Ander Cobce eta Carmen Mendez datoz. Ostatuko tabernari berriek irailaren 27an irekiko dituzte atea. Zorte on!

Traste zaharren bilketa

Urteko azken hiruhilabetea, traste zaharren bilketa honako egunetan egingo da: urriaren 27an, azaroaren 24an, eta abenduaren 22an. Gogoratu traste zaharrak zakarretara atera aurretik derrigorrezkoa dela Sasieta deitzea (943 161555).

KZ gunea urrian

Urriaren 14an eta 28an, KZ guneko arduraduna, Susana Gomez, Zerainen egongo da arratsaldeko 4etatik 8etara.